


Ez ezazue / ez ezazue / tapa gizonaren ahoa

Donostiako San Telmoko **Badu, bada** erakusketak harrotasuna eragiten du. Zorionak eman behar Joxean Muñoz, eta gidoian lagundu dion Harkaitz Canori

Baina Beasaingo **Gu itsasoa** erakusketak ere merezi du. Osagai gutxirekin ikuslea iltzatuta geratzen da

Boulevard-ean Zumeta, Laboa eta Sandimassen **Gernika** dago, zirrargarri



LAUBIDE

FELIX IBARGUTXI

zan naiz San Telmo Museoan, **Badu, bada**. Euskararen mundu eleanitzean erakusketa ikusten.

Edukia ez ezik, itxura ere landua du, kartoia den bezalako gai unilari zuku estetiko handia ateraz. Paretetan halako 'post-it' handi batzuk daude eskegita. Batzuetan datuak eskaintzen zaizkio bisitariari, beste batzuetan esaldiak. Adibidez, **Pello Salabururen** hau, 'Euskararen etxea' liburutik hartua: «Ezagutzen al du inork munduan kasuren bat non bi hizkuntza jakitea hizkuntza bat jakitea baino kaltegarriago gerta daitekeen?». Esaldi antologikoa da, neuk neure inguruan sarri sumatu eta egiaz-tatu dudana, bai horixe.

Erakusketara sartu eta, aurrena, **Gabriel Arestiren** olerki honekin egiten du topo bisitariak: «Baina ez ezazue / baina ez ezazue / baina ez ezazue / ez ezazue tapa / gizonaren ahoa. / Hitzaz balia dadin, / hitzaz zerbitza / dadin. / Honela konpreni dezazuen / zertarako / jaiotzen den / mundura». Eta, Arestiren olerkiaren ondoan, **Mikel Laboa** ikusten dugu pantaila batean, bere 'Lekeitio' horietako batean, erdi-garrasika erdi-kantuan, komunikazio-inkomunikazio batean.

Asko ikasten da erakusketara bisita eginda. Azkenean, halako harrotasun-aldarte bat uzten dizu. **Koldo Mitxelena** esan zuena: euskararen misterioa ez da noizkoa den, baizik eta nolatan iraun duen gaur arte.

Planeta hau hizkuntzez josia dago. Sei milatik gora omen dira hizkuntzak. Eta, **David Crystal** hizkuntzalariak 2004ko liburu batean idatzi zuenez, XXI. mende honetan hiru mila desagertu egingo dira. Sei mila hizkuntza horietatik, %95ek milioi bat hiztun baino gutxiago dauka, eta %50ek 10.000 hiztun baino gutxiago. Erakusketako beste 'post-it' batean irakurri dudanez, euskarak milioi bat hiztun dauka.

Mundu eleanitz batean bizi gara. Europako estatuak 46 dira, eta hizkuntzak «68tik gora». Munduan, berriz, estatuak 204 dira, eta hizkuntzak, lehen esan bezala, «6.000tik gora». Errazago da zehazten estatu-kopurua hizkuntzena baino. Noski, hizkuntza guztiek dute bizirik jarraitzeko eskubidea, hizkuntza guz-



Bi erakusketa. Goian, San Telmo Museoan 'Badu, bada'. Behean, Beasaingo Igartza jauregiko 'Gu itsasoa', urtarilerara arte iraungo duena. :: usoz

tiak dira errespetagarri. Aspaldi esan zuen **Cervantesek** berak, 1605eko 'Don Quijote' hartan, beste 'post-it' batean irakurri dudanez: «Homero handiak ez zuen latinez izkiriatu, grekoa zelako; ez eta Virgiliok grezieraz ere, latindarra zelako. Azken finean, antzinako poeta guztiek esnetan edoski zuten hizkuntzan izkiriatu zuten, eta beren kontzeptuen goratasuna azaltzeko ez ziren atzerriko hizkuntzen bila joan; eta hau horrela izanik, arrazoizkoa litzateke ohitura hau nazio guztietan hedatuko balitz, eta aleman poeta ez gaitzeste bere hizkuntzan izkiriatzen delako, ez gaztelaua, ez eta berean izkiriatzen duen bizkaitarra ere».

'Gu itsasoa' erakusketa Beasainen

Beste erakusketa interesgarri bat, Beasaingo Igartza

jauregian abendu bukaera arte egongo dena: **Gu itsasoa**. Lehen begiratuan erakusketa apala dirudiena, baina arreta ipiniz gero asko irakasten duena. Batez ere, ikus daiteke zer-nolako garrantzia izan zuen itsasoak XVI. mendeko euskaldunentzat. Bost zentzumenei zuzendutako atalak daude: entzun daiteke arrain-entzate bat, uki daiteke artilea... Erakusketa hori Zerainen ikusi nuen uda partean, eta datu batek eman zidan atentzioa: baleontziek, Ternuara zihoazenean, sagardo asko eramaten zuten, ura usteldu egiten baitzen. Kalkulatzen zuten marinela bakoitzak hiru litro sagardo edaten zituela. Beraz, ontziko 50.000 litro sagardo joaten ziren espedizio haietan.

Gernika, aspaldikoa, berria

Donostian, Kutxak Boule-

vardean daukan aretoan, **Gernika** erakusketa dago. «Bah, Gernikari buruzko beste erakusketa bat!» esango zuten batzuek honezkeror. Aste honetan izan naiz bertan eta harrituta ateratzen. Animaziozko film labur bat ikusi dut, 1999an **Jose Luis Zumetak** egin zuen 'Gernika' margolan erraldoian oinarritua, eta soinu-tzat, berriz, **Mikel Laboaren** izen bereko abestia daukana. Zumetaren irudiak oso indartsuak dira, Laboaren kantua zer esanik ez. Eta hori dena **Angel Sandimas** zinegile iruñearrak harilkatu du, eta benetako artefaktu bisuala gauzatu. Urteak pasa ditu, lau, filma egiten. Zumetaren koadroa ez da atzo goizekoa, Laboaren abestiak ere baditu bere urteak, eta Gernikako triskantza 1937an gertatu zen. Baina Boulevardeko aretoko bisita horretan, dena berri egin zait; dena berri eta zirrargarri.

Euskadi Irratiaren festa

Gaur betetzen dira 30 urte Euskadi Irratiaren lehenbiziko saioa entzun zela, eta festa egingo dute Donostiako San Telmon. Lehen emisio ofiziala 1982ko azaroaren 23an izan zen, eguerdiko 12:00etan. Minutu erdiko irakurketa instituzional bat egin zuen Julian Belokik, alde aurretik grabatua eta 'Agur jaunak' goinutzat hartuta.

Hasiara hartako langile askok alde egin dute erretiroa hartuta, baina beste batzuk hor ari dira oraindik: **Julian Beloki** bera (hainbat urtez zuzendari izandakoa), **Iñaki Elortza** 'Txapas' (kirol-letako esataria), **Jon Aizpuru** (albistegietako esataria), **Arantxa Irastortza** (kultura arloko esataria), bi administrari (**Arantxa Garagorri** eta **Ima Eizmendi**) eta hiru teknikari (**Xabier Laskibar**, **Joselu Aranburu** eta **Iñaki Olaziregi**). Laskibarrek, dena dela, gaur hartuko du erretiroa.

Argazkia, 'Txapas'-ena aukeratu dut. Izan ere, euskarazko kirol-erretasmisioetan sekulako aurrerapena gertatu da azken 30 urteotan, eta bera izan da kulpante nabarmenetako bat.

fibargutxi@diariovasco.com



Iñaki Elortza.